

Herni Aldizkaria

Otamotz

2004ko martxoa 95. alea



**Irailaren 11tik martxoaren 11ra,
Enrique Zalduarekin solasean**

**ELKARRIZKETA: J. R. URKIOLA, GIZAKIA HELBURUKO BOLONDRESA
ZINTZO-MINTZOK BAZKIDE KANPAINA ABIAN JARRI DU
IZERDI PATSETAN: J. M. URRETABIZKAIA, ARKU TIROAN TXAPELDUN**

O

o s k a r b i
o i n e t a k o a k
Ordizia Beasain Zumárraga



EHNA TRAMITAZIO BULEGOA

Hilabete bakoitzeko
lehenengo ostiralean

6:30_{tik} 8:30_{tara}
Urretxuko kultur etxean

eraman beharreko agiriak:
errola agiria (enpadronamendua)
hiru argazki
15 euro

ZURE
ESKU!



BAI
EUSKAL HERRIARI +

500 baietz!

Gaztetxoen Bertso Eskola indartzeko, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiari ahalik eta ekarpen gehienak egiteko, Gazte Lokala indartzeko, eskualdeko egunkaria kaleratzeko, Urretxu eta Zumarragako hizkerari buruzko lana argitaratzeko, jaietan euskara hutsezko ekitaldiak antolatuzeko, Otamotz aldizkaria indartzeko, herriko telebista euskaraz izan dadin lortzeko...

**Egin zaitez zu ere
Zintzo-Mintzoko bazkide!**

- Zintzo-Mintzoko bazkide izan nahi dut (25 euro, langabetu eta jubilatuek 6 euro) edo
 Otamotz harpidetza ordaindu nahi dut (12 euro)

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

Kontu korrante zenbakia (20 zenbakiak)

Izen-deiturak: _____
Jaiotze data: _____
Helbidea: _____
Herria: _____
Telefono zenbakia: _____
Email: _____
N.A.: _____


Datuak bete ondoren ebaki orri hau eta igor iezaguzu hauetako bideren bat erabiliz:

✉ Postaz edo besterik gabe hona ekarriaz:
Zintzo Mintzo Elkarte
Labeaga 12, behea (Goierri elkartearen ondoan)
20700 Urretxu

✉ Posta elektronikoz:
bazkidetza@zintzo-mintzo.euskalnet.net

Eta argibideren bat edo nahi izanez gero, deitu 943036474 telefono zenbakira.

ARGAZKI ZAHARRA



1959. urtean Agiñako Luistarrek Lourdesera egin zuten bidaian ateratako argazkia. Zutik, ezkerretik eskubira: Juanito Toledo, Juanito Alberdi, Vitoriano Plazaola, Pedro Plazaola, Pedro Legorburu, Juan M^a Plazaola, Leon Jauregi eta Benito Jauregi. Makurtuta: Manolo Plazaola, Jose Aramendi, Don Julian Prieto (apaiza), Migel Estonba, Jose M^a Plazaola eta Antton Zabaleta.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urdetxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkarte.

Labeaga kalea 12, 20700 Urdetxu. Tel: 943 03 64 74 / 605 71 87 73.

Koordinatzailea: Asier Zaldúa **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarría, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Maider Hernando, Jonmikel Insausti, Itziar Ormaetxea, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta, Marian Toledo, Asier Zaldúa.

Diseinua: Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti.

Inprimategia: GOI DESIGN - Zumarraga

Lege Gordailua: SS-742/96 ISSN: 1136-7318 **Tirada:** 2.000 ale.

Otamotz aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

colors
 arropa informala
 Kalebarren, 12
 Zumarraga
 943 72 40 57

MODAYANG

 -Arropa
 -Zapatak
 -Osagarriak
 Udaberriko moda-modako arropa, preziorik onenean!
 Labeaga, 43 behea - Urdetxu
 ☎ 943 53 48 68

PLAZAOLA
ITURGINTZA
 Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
 943 72 13 70



UROLA
ELEKTRATRESNAK
 ☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91
 Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

Kiroldegiaren teilatua behera etorri zen




Otsaileko azken igandean Aldiri Kiroldegiko teilatua, gainean pila-tutako elurraren pisuaz, behera erori zen. Zorionez, kiroldegian zeuden guztiak harmailen babesean zeuden eta kalte materialak soilik izan ziren. Udal teknikariek

egindako kalkuluaren arabera, kalteak 420.000 euro ingurukoak izan dira. Hondakinak kentzeko lanak abian dira eta Urretxuko Udalaren helburua urte amaierarako kiroldegiko ateak berriro irekitzea da.



Bertso ekitaldi arrakastatsuak

Bertso doinuak Urretxu eta Zumarragako txoko guztietara heldu dira martxo osoan zehar Bertso Eskolak antolatutako "Martxoan, bertsoa!" programaren bigarren edizioari esker. Ekitaldi guztiek arrakasta itzela izan badute ere, Herriko Bertsolarien II. Txapelketak berebiziko ikusmina piztu du. Motz, Intrepid Fox eta Aldiri tabernetan jokaturako kanporaketetan jende andana bildu bazen, Gaztelekuko finalean zeresanik ez. Parte hartu duten 27 bertsolariek lan duina duten arren (oholtzara igotzeko adorea izate hutsa txalotzeko da), txapela talde bakarrak irabaz zezakeen eta talde hau Gorka Azkaratek, Manex Mantxolak eta Aitor Zabaletak osatutakoa izan da. Zorionak guztiei!



Megadenda
zure aukera musika eta liburuan

www.megadenda.com

ramos

Bergara, 6
20005 Donostia
Tel.: 943 42 63 50

bilintx

Fermin Calbeton, 21
20003 Donostia
Tel.: 943 42 00 80
(Jai egunetan zabalik)

Paseo Colon, 8
20302 Irun
Tel.: 943 63 17 26

Arostegieta z/g
20400 Tolosa
Tel.: 943 67 35 33

Ibargarai, 12
20570 Bergara
Tel.: 943 76 40 50



Iñaki Mendiluzeren omenezko futbol torneoa



Ostegun Santu egunean, apirilaren 8an, Iñaki Mendiluze "Txugi"-ren omenezko IX. Futbol Torneoa jokatu da Argixao futbol zelaian. Bigarren urteko kimu mailako jokalarientzako futbol 8 torneo hau Urretxu eta Zumarragan Aste Santuan antolatzen diren ekitaldien artean garrantzitsuenetakoa bihurtu da dagoeneko. Aurten ere etorkizunean Euskal Herriko futbolari onenak izango direnak ikusteko aukera izango dugu. Bederatzigarren edizio honetan parte hartuko duten taldeak honakoak dira: Real Sociedad, Athletic Club de Bilbao, Zubieta XXI, Barakaldo, Santutxu, Peña Sport, Eibar eta Urola. Torneoari goizeko 9:30etan emango zaio hasiera eta lehen partidak sailkapenekoak izango dira. Ondoren, kanporaketak jokatu dira eta eta 13:30ak aldera final handia.

Itsaski zozketa

Argazkian gustura asko ikus ditzakezuen haurren aitak, Juan Mari Erostarbek, irabazi zuen euskararen normalizazio-arne aldeko otsaileko itsaski zozketa. Martxoko zozketako garaileak, berriz, Jesus Parra eta Amparo Diego izan ziren. Hurrengo zozketa ostiral honetan, hilaren 2an, izango da Ederrena pilotalekuan.



Herri Aldizkaria
Otamotz

aldizkarian publizitatea sartu nahi baduzu, deitu 943 03 64 74 telefonora.
Merkea eta ona!

Diamanki

Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

Eskulanetarako eskaiola, pintura edo besterik behar baduzu zatoz hona



Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 72 14 20
URRETXU

centro óptico
Javier Arratibel
óptica

Ikusmenaren neurketa - Begietako tentsioaren neurketa - Graduatutako eta eguzkitarako betaurrekoak - Lentilak - Termometroak eta barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA
☎ 943 72 54 84

KIRURJIA PLASTIKOA
KONPONTZAILEA
ETA ESTETIKA

orain zergatik ez?

QUIRÓN Klinika Alkolea parkea 7 20012 DONOSTIA Tel. 943 437 113

ZUZENDU Zentroa Labeaga 33D 20700 URRETXU Tel. 943 725 262

ALAZNE MANERO

kirurjialari plastikoa
Kol. zk.: 4658
RPS: 51/03

BELARRI BEREIZIAK, BETAZALETAN
POLTSAK, BULARRAK HANDITZEA
EDO TXIKITZEA, FALDOI
ABDOMINALAK, GANTZ-PILAKETA
LOKALIZATUAK, ERREDURAK, ALDE
BIGUNETAKO TRAUMATISMOAK,
AZAL-LESIOAK (ULTZERAK,
KISTE SEBAZEOK, NEVUS...)

KALTE ESTETIKOAREN BALORAZIOA

GUREA

Iturgintza

Bainurako altzariak
Gas instalazioak
Berogailuak
Bainuak...

Barrenkale 17- ☎ 72 12 67
20700 URRETXU

Labeaga aretoaren inaugurazio ekitaldia



Joan den larunbatean herritarrek Labeaga areto berria ezagutzeko aukera izan zuten. Goizean ate ireki jardunaldia izan zen eta herritarrek

areto berriaren txoko guztiak ikusi zituzten. Horrez gain, herriko hainbat taldek eskaini zituzten ekitaldiez gozatzeko aukera izan zen.

Antiguan berrikuntzak

Antiguako basilizan eta bere inguruan hainbat berrikuntza egin dira azken asteotan. Hala, oso egoera txarrean zegoen koruko eskilara berri da eta aldare aurrean, aparkalekutik basilizara daramaten eskilaretan eta basiliza ateko eskilaretan barandilak ipini dira. Koruko eskilara oso egoera kaxkarrean zegoenez, bisitarien segurtasuna jokoan zegoen. Hori dela eta, Antiguako Lagunen Elkartek eta Foru Aldundiak 21.000 euroko aurrekontua izan duen berrikuntza lana bultzatu dute. Egurrezko zutabe batzuk aldatu dira, 25 zentimetro zabalagoak diren eskaloi berriak jarri dira eta eskubanda moldeatu da heltzeko erosoagoa izan dadin. Pintatzea soilik falta da.

Horrez gain, XIV. mendekoa den Amabirjiñaren irudia Donostiara bidali da txukundu dezaten. Irudia ekainaren 17ra bitartean izango da Donostian, Gipuzkoako Amabirjiñen erakusketa batean ikusgai izan behar baitu. Ekainaren 17ra bitartean Antion ikus daitekeen irudia Jesus Seguroлак egindako erreplika da.

Erronka berrien bila

Secundino Esnaola Musika Eskolako bost pianojole gaztek Donostiako Piano Lehiaketa entzutetsuan parte hartu zuten joan zen asteburuan. Musika Eskolak urtero bidaltzen ditu pianojoleak lehiaketa honetara. Aurten, Lide Barcina, Maialen Etxanizek Oinarrizkoa 2 atalean parte hartu dute eta Uxue López eta Marta Madinak lau eskuetarako atalean. Herriko pianojoleak Argentina, Bulgaria, Kanada, Frantzia, Moldabia, Portugal, Ukraina eta estatuko erkidego autonomoetatik heldutako pianojoleekin lehiatu dira. Agurtzane Albisua, Josune Agirre eta Nerea Urkiolarekin ikasten duten bost pianojole gazte hauek oso lan txukuna egin dute Donostian.



Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel: 943 722599

Eraldatzen

Martxoaren 8aren inguruan

Martxoaren 8ako borrokak, aurten ere, emakumeek lan munduan eta gizartean jasaten duten diskriminazioa gogorazten digu. Tamalez, munduan, gehienetan, pobrezia eta langabeziak emakume aurpegia du.

Geure artean dagoen eta hain gaitz latzgarria den genero indarkeria, emakume asko eta asko gaitzeten eta erahiltzen dituena, desagertarazi behar dugu. Indarkeriaren arazoa ez dugu giza-banako arazotzat hartu behar, guztion arazotzat baizik. Esaterako, Zumarragako eta Urretxuko udalerrietan tratatu txarrak jasandako emakumeak ugariak dira. Hori dela eta, zenbait elkarterek eta udalek esku hartu nahi izan dute. Gogoratu hilabeteko azkeneko ostiraletan indarkeria gaitzesteko eta indarkeria jasaten duten emakumeen aldeko manifestazio isilera deitzen diegula hiritarrei Kalebarren-Areizaga enparantzan 19:00etan.

Eraldatzenek, alde batetik, Emakumearen Nazioarteko Eguna era instituzionalean, Zumarragako eta Urretxuko Udalekin, ospatu nahi izan zuen. Beste aldetik, aukera berdintasuna lortzeko plan integrala egitearen aldeko sinadurak biltzera atera zen kalera. Hala, iritziak elkar trukatzear gain, lau ordutan horren aldeko 500 sinadura lortu genituela esan behar da.

Ospakizunarekin amaitzeko, martxoaren 10ean Zumarragako balioanitzeko aretoan, Irene Intebik oso era originalean emakumeen mundu afektiboaz hitz egin zigun. Beraz, aurtengo martxoaren 8aren balorazioa oso positiboa da.

Emakumeak eskualdean duen egoeraz esan, estatistikek langabeziak emakumeen artean pisu handia duela azaltzen dutela. Hala, esan behar da, lanik ez duen %65a emakumeak direla, horrek dakartzan ondorioekin: pertsona bati lan egiteko aukerarik ez eskaintzea, gizartean duen identitatearen oinarritzko osagaiak kentzea da, eta horrekin batera dependentzia harremanak, autoestima baxua, genero indarkeria erraztea eta beste makina bat arazo sortzen dira.

Alde batetik, oraindik betiko kulturak eraginda, emakumeak gizarte mailan edo arlo ekonomikoan gutxi baloratuta dauden sektoreetara desbideratzen dira. Bestetik, enpresarioek emakumeak kontratatzeke orduan, bai lan gaituentzat eta baita ez gaituentzat ere, jarrera negatiboa dutela argi eta garbi dago.

Emakumeok gure gaitasunen azpitik bizi garela esan dezakegu, emakumeak lan merkatuan duen presentzia ez baitator bat emakumeok gaur egun dugun prestaketarekin. Lan baldintzak tamalgarriak dira: lan bat aurkitzeko zailtasun gehiago daude, lan eskasagoak dira, soldata txikiagoak ditugu, eta gainera, ama izatea erabakitzen badugu lanetik bidaltzeko arrisku handiagoa dugu.

Eraldatzenek antolatutako Aukera Berdintasunerako Eskualdeko lehen Foroan, 2003ko azaroaren 8an izan zena, zenbait irtenbide adierazi ziren:

-Problematika honetaz eztabaidatzeko guneak sortu.

-Ikasketen aukeraketa egiteko ordurako informazioa bermatu.

-Enpresarioei sentsibilizatzeko kanpainak zuzendu.

-Emakumeentzako lana sustatzeko programa eraginkorrak egin.

-Haurrak uzteko, eta horrela lanpostuetara joan ahal izateko, guneak antolatu.

-Etxeko arduren banaketa sustatu, poztasunak, exigentziak, sariak eta kezkek etxekoen artean berdin banatzeko.

-Emakumeei berez leporatzen zaizkien zenbait ezaugarri baztertu.

-Gizarte leku justuagoan eta solidarioagoan bihurtu.

-Honetan hiritar guztiak inplikatu.

-Aukera-berdintasunari ezin zaio lege eta gizarte aldetik bakarrik heldu, ikuspegi orokorragoa erabili behar da berdintasunaren politika publikoak inplementatzeko.

Eraldatzenek interbentzio-plan integralaren alde apustu egin du.

Transbertsalitatea edo mainstre-

aminga, batez ere 1995. urtean Pekinen izan zen Emakumei buruzko IV konferentziatik aurrera, botere publikoen agendei gehitu zaien funtsezko kontzeptu bat da. Kontzeptu hau Europa Batasuneko ekintza-protokolo guztietan sartu da, orain bere implementazioa herrialdeei eta zehazki toki erakundeei dagokie. Gure ustez, berdintasun plana komunitateko sektore desberdinen arteko elkar trukaketaren ondorioa izan behar du.

Gure helburuak lortzeko, elkar-tze-sarea bultzatzea funtsezkoa da. Emakume-elkarteak erreferentzia garrantzitsuak dira, salaketak jasotzeko, antolatzen dituzten ekintzen bidez gure herriotako biztanleekin harreman zuzena izan dezakete, eta horrela gizartearen parte-hartzea errazten dute. Beste emakume batzuk ere hurbil daitezke eta duten norbanako botereaz eta talde moduan duten botereaz jabe daitezke. Oso garrantzitsua da konformismo pasiboa, isolamendu pertsonala eta gizarteko desblokeatzea eta benetako berdintasuna lortzeko motorrak diren elkarteetan parte hartzea. Hori dela eta, Eraldatzenek bere elkartearen parte hartzera gonbidatzen ditu eskualde honetako hiritarrak, hemen ideia ekarpenak egin ditzakezu eta zure ingurune hurbilean aldatu nahiko zenituzkeen alderdien alde lan egin dezakezu, zu egotea zure ahotsa oso garrantzitsuak dira.

Guztiok gizarte bidezkoagoa eta solidarioagoa nahi dugulako gure eskualderako aukera berdintasuna lortzeko Plan Integrala bultzatu behar dugu. Ez utzi besteei zuregatik dena erabakitzen, parte hartu eta zuk ere erabaki.

Kontaktua: eraldatzen@ozu.es 630 611 181

Bilerak: ostiraletan, 18:00etan, balioanitzeko aretoan, Zumarragako Gizarte-zerbitzuak. Euskadi enparantza, 6-3. solairua.

Eraldatzenek Zumarragako eta Urretxuko Udalei eskainitako laguntza eskertu nahi die, baita hiritarrei orokorrean ere.

Herriko presoen senideak

Martxoaren 11ren inguruan herriko presoe

Martxoaren 11an Madrilen gertatutakoak komunikabideetan ordu eta orrialde osoak bete izan ditu. Gaiari buruzko iritzi, eztabaida, (des)informazio... ugari.

Baina gutun honen helburua ez da dagoeneko kaleratu diren iritziak errepikatzea, esan ez direnak azalera-tu eta jakinaraztea baizik.

Espaniar estatuko kartzeletan senitartekoak ditugunon aldetik, martxoaren 11ko ondorioek zuzenean jo gaituztela esan genezake.

Madriko herritarrek jasan dutena gogorra izan den neurri berean, estatuko kartzeletan dispersaturik dauden herriko presoek bizi behar izan dutena ere ez da gutxiagorako izan.

Ostegun hartako lehen orduak izan genuen gertatutakoaren berri, baita lehen unetik eta guztien ahotan entzun ere, bertsio ofiziala. Askoren buruan, ezin dezakegu uka, euskaldunoi gainera zetorkigunaren tamaina ezin genuela neurtu zegoen. Era berean, Euskal Herrikan kanpo, eta zehatzago, Madril inguruan euskal presoak ditugun senideen buruan, gure senideek egoera nola bizi zuten kezka genuen.

Ordura arte kezka zirenak, eguerdirako konfirmatu ziren: irrati batean entzundakoak eta interneteko egunkari pare batean irakurriak, Alcalá Mecon euskal preso politikoei "arazoak" eta "enfrentamenduak" izan zituztela zioten; gutxira Soto del Real; ondoren Aranjuez. Gogoratu Soto del Realen Miren Josu Aranburu eta Aranjuezen Joseba Garmendia eta Joseba Segurola urretxuarrak preso daudela.

Berriek, Madriko gertakarien ondorioz preso sozialak euskal preso politikoen aurka altxatu eta enfrentamendu gogorrak egon zirela zioten. Horretaz gain, euskal presoak ziegetan isolatu zituztela.

Albiste labur eta informazio eskasa. Euskal komunikabideetan gutxi hedatu eta berehala itzali zena. Bitartean hemen geundenon artean kezka handituz zihoan, preso ditugun senideekin komunikatzeko modurik ez genuen eta. Egoera gogorra zen. Berrien falta handia. Inpotentzia ikaragarria.

Herriko jendeak izan zuen albistearen berri; etxe eta sakeleko telefonoak jo eta jo hasi ziren. Denek inor gutxik genuen informazioaz galdezka deitzen zuten.

“Ondorio zuzenak: isolamendu ziegak eta komunikazio murrizketak epe mugagabeen”

Ostegun hura luze joan zen guretzat. Denok senideen deia zain edota berri bila ginen, telefonoa ondoran, irrati gertu eta interneten bila eta bila. Zuzenean komunikabideetara berriez galdezka deitu zuenik ere izan zen gure artean, baina ez zegoen ezer zehatzik. Etxerateko bulegoan ere gauza gutxi zekiten oraindik ere.

Asteburuan bisitak zeuden eta bidaia egin behar zutenen artean beldurra eta kezka nagusi zen. Osteguneko egoera zegoen bezala, ez zen batere gomendagarria ostiralean Madrilera abiatzea.

Ostiral goizetik bestelako saia-kerarik egin zen. Esaterako, Soto del Realeko presondegiaren egoeraren berri jakiteko eginiko deiak. Alferrikakoa, telefonoaren bestaldeko funtzionario eta asistenteek ez zuten inongo berririk ematen, ez presoek egoerari buruz, ez eta asteburuko bisitak mantenduko ote ziren ere. Informazio sekretua

omen zen, antza, eta beraiek ez zeuden baimenduak halakoek berri emateko. Kartzelako segurtasuneko arduradunekin kontaktatzea ezinezkoa izan zen.

Aranjuezeko egoeraren berri zuzena ostiral arratsaldean izan genuen. Joseba Garmendiak eginiko telefono deia laburrean, ziegetan isolatuak zeudela eta osteguneko batez ere 3. moduluan izan zirela arazoak zioen. Modulu horretan Joseba Segurola zegoen. Preso sozialak, ostegun goizeko lehen berriekin, euskal preso politikoen aurka jo zuten, eraso eta enfrentamenduak zuzenak izan zirelarik. Presondegiak zuzendaritzak modulu guztietako euskaldunak ziegetan bakartzea erabaki zuen, bertatik ordubete bakarrik irteteko aukera eman, beti ere beste presoekin ez topatzeko txandatan. Ziegetan "itxita" zeudelarik beste presoek eraso, irain eta mehatxuak jasan behar izan zituzten. Aipatu, "itxita" zegoen euskal preso baten ziegako atea indarrez erdi zabaltzea lortu zuela preso sozial talde batek eraso burutzeko asmoz, aipaturiko euskal preso lexiazko botila batekin eraso ekiditen saiatzen zen bitartean. Beste modulu bateko euskal presoek sukaldean zituzten tresnak erre zituzten eta bazkari bandejak jasotzera zihoazenean, janariari lexia bota ziotela ohartarazi zien norbaitek.

Egoera honetan, eta giroa lasaitzen ari zela zioten arren, Aranjuezeko euskal presoek asteburu hartako senide eta lagun bati uko egitea erabaki zuten, guztion segurtasuna bermatzearren.

Soto del Realeko emakumeen moduluan bizitako egoera ere zaila izan zen. Ostegun goizean, preso sozialak euskal presoek aurka ekin zuten irain eta oihuka. Mehatxuak ugaritzen hasi ziren eta euskaldunak ihes egin eta beren ziegetan nolabait babestu ziren, funtzionarioen pasibotasunarekin. Azken hauek ez zuten ahalgin gehiegirik egin egoera lasaitu

k jasandakoa

ezta laguntzeko ere.

Presondegiko zuzendaritzak euskaldunak isolatzea erabaki zuen. Ziegen barruan presioa handia izaten jarraitu zuen. Eguneko 24 orduak ziegan pasa behar izan zituzten. Funtzionarioek janaria ate ondoan (lurrean) uzten zieten eta hankarekin ziega barrura bultzatu. Asteburuko bisita egiterik izan zuten Sotora hurbildutako senide eta lagunek.

Isolamendu egoera honek bost egun iraun ditu bai Soto del Realen, bai Aranjuezen. Azken honetan euskal preso politikoak moduluz aldatu dituzte. Egoera bideratzen saiatzen ari dira eta hainbat preso sozialek barkamena berehala eskatu diete euskal presoek. Soton, ordea, ziegatik ateratzean mehatxuak mantendu izan dira oraindik.

Bestalde, Salamanca eta Curtisen, Mertxe Galdos eta Gonzalo Rodriguez ezkiotarrak preso dauden espetxeak, lehenengo tentsio uneetatik ez zen pasatu hasera batean. Baina gerora, osteguneko gertaerek sorturiko giroa aprobetxatuz, kondena betetzen ari diren euskal preso politikoei 1. gradua aplikatzea erabaki zuen Madrilek. Ondorio zuzenak, isolamendu ziegak eta komunikazio murrizketak epe mugagabeen.

Gure senide presoek nabarmetzen zuten, Madrileko komunikabideek, martxoaren 11an gertatutakoaren inguruan astelehenean ematen zituzten berrietan, oraindik lehen eguneko bertsioa zen nagusi.

Herriko presoek senideok, egoera gogor honen berri eman eta herrira zabaltzeko beharra ikusi dugu, horrelako gaiek komunikabideetan duten oihartzun eskasa ikusirik. Argi dago euskal preso politikoen eskubideak ez daudela euskal komunikabide eta alderdien agendan. Euskal presoek eskubideak ez daude modan, antza!

Nola hartu duzu gobernu aldaketa Espainian? Onerako ala txarrerako izango al da? Zer eskatuko zenieke?



Mª Isabel Ugalde

Aldaketa hoberako izan dadila! PPrekin egotea baino okerragoa ez da izango behintzat. Bere garaian alargunoi kendu ziguten laguntza ezartzea eskatuko nieke. Lehen alargunok senarraren pentsioaren erdia eta guri zegokiguna kobratzen genuen eta PSOEek gure zatia kendu zigun.




Itziar Iriondo

Gobernu aldaketa okerrerrako ez da izango, baina onerako izango ote den ikusteko dago oraindik. Ea Autonomi Estatutuarekin zer egiten duten... Pakea lortzeko ahalegina egitea eskatuko nieke.



Isabel Jiménez

Okerrera egitea ezinezkoa denez, edozein aldaketa onerako izango dela iruditzen zait. Gobernu berriari tolerantzia eskatuko nioke. Hitz egiten eta entzuten jaki dezatela.



Antonia Martínez

Ematen diguten apurra ez diezagutela kendu behintzat! Jubilatuta eta alargunentzat laguntza ekonomiko handiagoak eskatuko nizkieke. Bestalde, nire soldatarekin aurrera egiteko gai diren ikusi nahiko nuke.

I-11tik M-11ra, Enrique

Zumarratarrak gertutik jarraitu zuen Dorre Bik



Enrique Zaldúa jaiotzez zumarratarra da, baina urte luzeetan EEBBetan bizi izan da. Bertan, hamaika lanetan aritu da: unibertsitatean klaseak ematen, Euskal Herrira bidaiak antolatzen, Time aldizkarian erredaktore lanetan eta Euskaldunon Egunkarirako berriemaile lanetan, besteak beste. 2001eko irailaren 11ko gertakaria gertutik bizi izan zuen eta bera izan zen New Yorketik heldu ziren irudiei ahotsa jarri ziena ETB2 katerako. Iaz, New York-eko bizimoduaz nekatuta, Zumarragara itzuli zen. Dorre Bikietako gertakariarekin lotura zuzena duen Madrilgo sarraskiaz hitz egiten izan gara berarekin.

Nola bizi izan zenuen martxoaren 11ko goiza?

Time aldizkariko Europako edizioaren bitartez izan nuen gertatutakoaren berri. Lanean, informazioa biltzen eta pieza guztiak bere tokian jartzen saiatzen aritu nintzen. Politikoen, adituen... iritziak bildu behar izan nituen batez ere. Mundu guztiak ETA izan zela uste zuen eta dexente kosta zen hipotesi hori baztertzera. Horretan, nirekin lanean aritu zirenen aurretik ibili nintzen.

Zuk ere hasieran ETA izan zela pentsatu zenuen, beraz.

ETA izan zela pentsatu nuen, noski. Azkenaldian jasotako informazioaren arabera, ustez ETAKoa zen jendea Gabonetan trenean eta Cuencan 500 kilo leherkarirekin atxilotu zuten. ETak ez ditu horren gauza larriak egin, baina 20 hiltzea edo 200 hiltzea gauza bera da. Burua galdu eta berebiziko gehiegikeria egin zutela pentsatu nuen. Gero, datuak, iritziak... biltzen joan heinean, hasierako suposizioa eta datu horiek ez zetozeela bat ikusi nuen.

Zer iritzi duzu sarraskia ETari leporatu nahiaz?

Egurtzen zaituena beti bera bada, egurra jasotzen duzun guztietan erruduna bera dela pentsatzen duzu. EEBBetan asmatu bazuten, hango joera errua beti Al Kaedari leporatzea delako da. Inertzia kontua da. ETA hori egiteko gai ez dela esatea... hori halakorik ez eginez frogatzen da. ETak lehergailuak jarri izan ditu eta jendea hil da. Lehen tiroka zebiltzan hamaika talde zeuden, baina azkenaldian ETA soilik zebilen horretan. Dena den, European egileak islamiarrek zire-

Zalduarekin solasean etako gertaera, Time aldizkarirako lanean zela

la pentsatzeko Espainian baino joera handiagoa izango zen, baina PPko gobernua-
ren presio diplomatikoak pertzepzio hori
ezabatu zuen.

PPk jokatu duen moduan jokatzeari espero al zenuen?

Gauzak diren moduan ikusten
saiatzen naiz. Ez zait etiketak jartzen
dituen jendea gustatzen. Ez nago beti "ea
hauek zer egiten duten" pentsatzen. Esango
dutenaren zain egoten naiz eta, gero, sines-
tu egiten dut edo ez. Jendeak normaltasu-
nez funtzionatzea espero dut, baina gero
hauteskundeak pasa bitartean jendeak ETA
izan zedila pentsatzea nahi zutelako kontu-
tu nintzen. Dena den, kazetari bezala, bote-
rea dutenekiko errezelua izan beharra dut
eta, bestela ere, ez dut inork esaten didana
besterik gabe sinesten.

Zer diozu gainontzeko alderdien erreakzio politikoaz?

Nire ustez politikan, Euskadin
gehiago, gertakariari ematen zaien garran-
tzia, deklarazioak... leundu behar ditugu.
Askotan besteei behatza begian sartzea
goaz. Normala da politikan norberak bere
alde egitea, baina zenbaitetan lotsa pittin
bat sentitu beharko lukete.

Nola irizten diozu komunikabideek egin duten lanari?

Ez dut gehiegi jarraitu komunika-
bideen lana. Izan ere, nire lana egiteko nire
iturriak erabili ditut. Gertutasuna dela eta,
ETB jarraitu dut eta ondo lan egin duela
uste dut. TVE, berriz, gobernua-
ren transmisio uhala izan da. Ez dira iritzi ezberdi-
nak biltzen saiatu. Hauteskundeetan ostean
El País-ek oso posizio militantea hartu
duela, PSOE gauzak egin ditzan presiona-
tzen ari dela, iruditzen zait. El Mundo-
k ere, PPren alde, lehen baino posizio mili-
tanteagoa hartu duela uste dut.

I-11ko gertakaria eta M-11koa oso lotu-

ta daude, zer alde egon dira gertakaria- ri emandako erantzunari dagokionez?

Espainian mugimendu demokrati-
koagoa eman da. Komunikabideek
Espainian hobe jokatu dutela esango nuke.
Espainiako komunikabideen (SER, Tele5,
ETB...) eta iritzi publikoaren sektore handi
batek hasieratik gobernuari egurra eman
dio, beharbada gobernuak zioena egia ez
zen susmoa hartu zutelako. EEBBetan,
berriz, gobernuari ez zitzaion inongo egu-
rrik eman; nahiz eta, segurtasun akatsak
zirela eta batez ere, gobernuari egurra ema-

“Hemen erantzun
politiko eta gizatiarra
izan dira eta han,
berriz, gizatiarra
soilik izan zen”

teko motiboak zeuden. Baina, EEBBetan
jendea elkartu egiten da erasotua sentitzen
denean, desadostasunak saihesten dituzte,
autozentsuratu egiten dira... Hemen, zorio-
nez, ez dela halakorik gertatzen uste dut.
Izpiritu kritikoa ona dela uste dut, are
gehiago krisi egoeretan. Hemen erantzun
politikoa eta gizatiarra izan dira eta han,
berriz, gizatiarra soilik izan zen: pena,
dolua, mendeku nahia...

Hauteskundeetan emandako emaitza espero al zenuen?

PPk gehiengo absolutua galtzea
espero nuen, baina esan diezadala norbai-
tek PSOEk irabaztea espero zuela!
Zapaterok hori dio, baina bere etxekoei
esango zien hori... Hauteskundeetan jazo
den eragile nagusia Madrilgo atentatua
izan da, baina horren kudeaketak, Irakeko
gerrak... ere eragina izan dute.

Ekonomiaren egoera nahiko ona dela diru-
dienez, jendeak PPk egindako guztia onar-
tu du. Baina honako hau gehiegizkoa izan
da. Jendeak aurreko guztietan gertatuakoa-
rekin lotu du eta gauza askotan gezurretan
aritu direla ikusi du. Zigor botua izan da.

EEBBetako jendearekin harremanik izan al duzu asteotan? Nola ikusten dute hau guztia?

Aldizkariko jendearekin ez dut
harremanik izan, baina lagunekin bai.
Askok Madril ezagutzen dute eta kezkatu-
ta zeuden. Nire ustez, EEBBetan gertakari
hau dirudiena baino gutxiago jarraitu dute.
Dena den, gertakari honek garrantzi handia
du EEBBarrentzat. Izan ere, aliatu fidelena
galdu dezakete. EEBBetako hauteskondeei
begira ere gertakari garrantzitsua da.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Ez du itxura onik, baina horrek ez
du esan nahi konponbiderik ez dagoenik.
Islamiar erradikalek suntsipena eragiteko
ahalmen handia dute eta ez dira ezerean
aurrean beldurtzen. Hala ere, ez da kontu
hau behar baino gehiago dramatizatu
behar. Hor dago eta aurre egin behar zaio.
Orain ikusiko dugu Zapatero beste enfoke
bat emateko eta agresibitate hori biguntze-
ko gai den. Aznar Espainia mapan jarri iza-
naz harro zegoen, baina Espainia nazioar-
tean ikustarazteko ahalmena duena
Zapatero da. Izan ere, Aznarrek
EEBBrekiko bihurtu du Espainia ikusgarri,
baina gainontzeko herrialdeentzat Espainia
ez da ezinbestekoa: European denei aurre
egiten die, Marruecosekin borrokatu da...
Hori ez da ospea. Orain Zapaterok dinami-
ka propioa, espainiarra, ezartzeko aukera
du. Irakeko egoera berbideratzeko aukera
sor daiteke: Nazio Batuen bidezko jarduna,
legezkoa, benetan gizaldekkoa... Zapaterok
behin eta berriro esan du Iraketik ateratze-
ko asmoa duela. Dena den, nire ustez
PSOEk ez du hain argi. Dagoeneko batzuk
jendeak lehenagotik aldaketa nahia zuela

esaten hasi dira... Beharbada Al Kaedari gehiegizko garrantzia ez emateko ari dira hori esaten, ezin baitute esan Espainia Iraketik atentatuengatik aterako dela esan. Bestela, Al Kaedari lehergailuak jarriz politika aldatzeko baimen osoa ematen ari gara...

Dena den, jokaera horiek Al Kaeda tar-tean izan gabe ere aldatu beharko lirate-ke...

Beste herri batean esku hartzea oso arriskutsua da, herrialde bakoitza buru-jabe baita. Hori Nazio Batuen Erakundearen (NBE) bitartez egin beharko litzateke, estatuak nazioarte mailan funtzionatzeko sortutako tresna baita. NBEk kontu batzuetan ondo funtzionatzen ez badu estatuak beraien erruagatik da. Ahalmen exekutibo handia duen erakundea ez bada ere, topagunea, adostasuna bilatzeko bilgunea, izan beharko litzateke. Azken urteotan hori ere ez da izan. Iraken, adibi-

dez, legez kanpoko gerra baten bidez erregimena deuseztu da, baina irakiarrei zer edo zer ezberdina egiten laguntzeko aukera dago. Nire ustez, Saddam izango ez zen zer edo zer nahiko zuten. Maila horretan nazioarteko komunitateak zeresana du:

**“Hauteskunde-
emaitza umiltasunez
jokatzeko eskaera
dela uste dut”**


gizaldeko laguntza, hezkuntza... bultzatu ditzake, hango jendeak gauzak hobe egin daitezkeela ikus dezan. Denok ere dinamika batean murgilduta gaude eta hortik ateratzerik ez dagoela iruditzen zaigu, baina zaplastekoa eman beharrean eskua ematen

badugu, gauzak konpondu daitezke. Aditu guztiek diote, gainera, ohiko gerren bidez ez dagoela terrorismoarekin bukatzerik. Nire ustez mundu guztiarekin hitz egin behar da. Nik ikusten dudaren arabera, Al Kaeda oso konplexua da. Zenbait gobernutan laguntzen dien jendea dago eta sare ekonomiko oso indartsua dute.

Espainian botere aldaketa eman den moduan eman izana Euskal Herriko egoera konpontzeko ona izan daitezkeela uste al duzu?

Hauteskunde emaitza alderdientzat, ETarentzat..., denontzat, ohartzapena dela uste dut. Umiltasunez jokatzeko eskaera izan da. Batetik, ezin da lehergailuak jarriz ibili eta, bestetik, politika erlatibizatu beharra dago. Politika politika besterik ez da. Akordioetara heltzen saiatu behar dugu, erreferenduma behar bada erreferenduma egin behar da... Politikak politika izateari utzi dio eta ani-

EEBBetan denetik pixka bat egin duen zumarratarra



Enrique Itarte Etxean ikusgai duen koadroetako batera aurrean.

Nolatan erabaki zenuen EEBBetara joatea?

Donostian zuzenbidea ikasi eta Arthur & Andersen aholkularitza eta auditoritza enpresan hasi nintzen lanean. Enpresa horretan pare bat urte egon nintzen, baina ez nuen nire etorkizuna zuzenbide munduan ikusten. Hori dela eta, beka eskatu eta EEBBetara joan nintzen nazioarteko ekonomian masterra egitera, Nazio Batuetan sartzeko asmoz. Betidanik gustuko izan ditut nazioarteko ekonomi eta garapen kontuak.

Zertan hasi zinen lanean?

Colorado estatuko gobernu agentzi batean lanean hasi nintzen. Garai hartan Mexikorekin merkataritza aske hitzarmena sinatu zen eta herrialde mugakideen arteko kooperazio kontuetan lanean aritu nintzen. Ez genekien oraindik oso ondo hitzarmenak zuzenbide eta ekonomi mailan zer suposatuko zuen eta nire ekarpena zuzenbide ezaguerara izan zen. Horrez gain, unibertsitatean klaseak ematen ere aritu nintzen 1995ean, berriz, New Yorkera joan eta Nazio Batuen Erakundean lanean hasi nintzen.

Euskal "enbaxadore" lanetan ere aritu zara...

Gauza ezberdinak egitea, sortzea... atsegin dut eta Euskal Herria "saldu" nahi nuen. Izan ere, kanpoan egon naizenean Euskal Herriko "enbaxadore" sentitu naiz. Nire ustez, kanpora ateratzen garen guztiok bete beharko genuke paper hori. Gainera, etortzen nintzen bakoitzean Euskal Herria zoragarria zela eta ez zela nahikoa ezaguna ikusten nuen. Hori guztia dela eta, Euskal Herria ezagutzera emateko, 1997an Euskal Herrira bidaiak saltzen zituen enpresa sortu nuen. Enpresa ireki nuen garaian Guggenheim ireki zen. Dena den, enpresa sortu nuenean ez nuen Guggenheim-en pentsatzen, hasieran behintzat Donostiako Jazz Jaialdia saltzen saiatu nintzen batez ere. Horrez gain, Gipuzkoa, Bizkaia, Araban... ibilbideak prestatu nituen, katalogoak egin nituen Eusko Jaurlaritzaren eskuorrietan oinarriturik... Telefono eta internet bidez lan egiten nuen New Yorken nuen apartamentuan eta urte pare batean nahiko ondo joan zen. Oso esperientzia aberasgarria izan zen.

malien arteko kontuekin zerikusi handiagoa duen zer edo zer bihurtu da; Iruñeako kasuan ikusi den moduan: nik nahi dudana egiten ez baduzu, terrorista, hiltzailea... zara. Herrialde edo egoera normal batean ez da zertan halakorik gertatu behar.

Horren aurrean, komunikabide eta alderdi gehien erantzuna betikoa izan da...

Albiste hori komunikabide askotan ikusi dut. Ez dut uste ezkutatu denik. Time aldizkarikoei horren berri zabalagoa eskaini edo ez pentsatzen aritu nintzen, baina, nire ikuspuntutik, inertzia informatiboak beste toki batera bideratzen gintuen. Beste edozein momentutan, polizia batek pertsona bat hiltzea lehen orriko notizia litzateke. Are gehiago nola eman den kontuan hartuta. Albistea da, baina 200



hildako izan dira Madrilen, hauteskondeak izan dira...

Hala ere, beste erantzun bat merezi

zuela uste dut.

Dinamika horiek aldatzea asko kostako da. Gertaera aberrantea izan da, baina halako egoeren aurreko jarrera aldatuko duen ikusteko denbora gehiago behar da. Niri ere gai honi garrantzi handiago ematea gustatuko litzaidake, amorraren aurrean, gobernuaren kanpainaren aurrean... kontrapuntu ona bailitzateke. Izan ere, honek guztiak zenbaitzuk diskurtso zehatz batek fanatizatuta burua galtzea ekar bailezake. Kasu honetan hala izan da, baina beste batzuetan beste alderdi batzuetako jendeak kalean jipoiak jaso ditu. Zergatik? diskurtsoaren fanatizazioagatik. Hemen hala bizitzea ia

sahiestezintzat dugu, baina munduko toki askotan ez dira hala bizi. Ea Madrilgo gertakariak sortu duen shock-ak hau guztia aldatzen laguntzen duen.

Turismo enpresa itxi ondoren, non hasi zinen lanean?

Ordurako Time aldizkari lan-ean hasita nengoen. Nire lagun bat Latinoamerikarako ateratzen zuten edizioan lanean hasi zen eta editore lana eskaini zidan. Esperientzia bikaina izan zen eta nigan eragin handia izan du. Artikuluak jaso eta argitaratzeko moldatzen nituen. Lana ez zen nik aukeratuko nukeena, baina Time munduko aldizkari garrantzitsuenetako bat da eta asko ikas daiteke bertan. Hala, aukera ezberdinak suertatu zitzaizkidan: Korea eta Japonen mundialean izan nintzen, Egunkariarentzat korrespontsal lanak egin nituen... Bestalde, beste gauza batzuk egiteko denbora nuen eta, hala, arte munduan ere hasi nintzen. Oraindik Time aldizkariarentzat lan egiten dut, baina hemendik.

Nolatan hasi zinen Egunkariarentzat lanean?

EEBBetan nengoela, hemengo komunikabideren batekin ere lan egin nahi nuen. Egunkari askorekin hitz egin nuen eta Egunkaria soilik interesatu zen. Superbowl-ari buruz, Irailaren 11ko gertakariari buruz... idatzi nuen beraiantzat. Egunkariaren nazioarteko atala asko atsegin nuen, nazioarteko sailean esfortzu handia egiten baitzuten eta profesionalki lan egiteko eta egunkari ona egiteko lan handia egiten baitzuten.

Nola bizi izan zenuen Egunkariaren itxiera?

Time-n Europako edizioan lan egiten duen bati deitu nion itxieraren berri emateko eta gai horri buruzko artikuluak egin genuen. Bera hona etorri zen eta Martxelo Otamendirekin eta Eusko Jaurlaritzako jendearekin hitz egin zuen. Informazio nahiko ona eskaini genuela uste dut. EEBBetan, berriz, Egunkariaren itxierak ez zuen interesik piztu. Dena den, komunikabide bat ixtea aberrazio hutsa iruditzen zait, are gehiago gertaerak 10-11 urte lehenagokoak badira. Gainera, erantzunkizuna beti norbanakoarena da.

Zer dela eta itzuli zara herrira?

Time-ko lana bukatu zitzaidan, gehigarria itxi baitzuten, eta, gainera, New York-eko bizimoduaz nekatuta nengoen. Hala, itzultzeko garaia zela somatu nuen. Hemen bizitzea esperientzia berria da niretzat, oso gazte nintzela irten bainintzen hemendik. Ni New York-en heldu naiz. Oraindik ez naiz herrian gehiegi murgildu, baina kultur mugimendua dagoela iruditzen zait. Zinea egotea, zineklub saioak antolatzea, antzerki taldea egotea... bikaina da.


Herrira bueltan, zure alde "artistikoa" jorratzeari ekin diozu. Egunotan zure margoak ikusgai dira Itarte Etxean.

Betidanik idaztea atsegin izan

du. Poesia idazten hasi nintzen, kontakizunak ere idatzi ditut, itzulpen lanak ere egin ditut... Hitzek, lengoia idatziak... sekulako aberastasuna dute eta aukera estetiko handiak eskaintzen dituzte. Hitzaren estetikaren bila inprobisazio teatroa egiten eta margotzen hasi nintzen. Idazten nuenean hitzez margotzen ari nintzela iruditzen zitzaidan, nire idazketa lanak beti oso koloretsuak izan dira, ikustekoak. Margotzea gustatuko litzaidakeen moduan idazten nuenez, zuzenean margotzea erabaki nuen. 2001eko irailaren 11ko gertakariaren ostean sentitu nuen, batez ere, margotu beharra.

Nola definituko zenituzke zure margo-lanak?

Inprobisazio lana nagusi da beraietan, subkontzienteko lanak dira. Koloreak garrantzi handia du niretzat, biziaren sinonimoa da. Oso modu amorfoan, azalez gutxi egituratuta... margotzen dut. Margoetan biziaren kaosa isladatzen dudala uste dut, baina kolore biziak erabiltzen ditut. Ez naiz sekulako margolaria, baina nire helburua espresatzea da eta lortzen dudala uste dut. Margolaritza mundua ezagutzen dutenek, behar bada, nire margoetan Jason Pollock-en lanarekin antzekotasunen bat ikus dezakete. Pollock-ek akzio pintura teknika asmatu zuen: mihisera koloreak "botatzean" datza, potetik edo brotxaz.



J. Roman Urkiola:

Gizartea Helburun bolondres

“Drogarik hartu gabe zorientsu izaten ikasi behar da”

Heroinak Euskal Herria gogor astindu zuen urteetan Gipuzkoako Elizbarrutiak Gizakia Helburu (Proyecto Hombre) sortu zuen droga-menpekotasunean murgilduta zeudenei laguntzeko asmoz. Elkarrekin honek drogaz eta bizitzaz duen ikuspegiarekin bat ez datorren jendea dagoen arren, beste askorentzat Gizakia Helburu salbamena izan da. Heroina kontsumoa asko jaitsi bada ere, beste droga batzuek indar handia hartu dute eta askoren bizitzan arazoak sortu edo larritzen dituzte. Hala, 18 urteren bueltan, Gizakia Helburuko bolondresak lanean darraite. Bolondres hauetako bat Jose Roman Urkiola zumarratarra dugu. Berarekin euren lanari eta drogei buruz hitz egiten izan gara.

Nolatan sortu zen Gizakia Helburu?

Gipuzkoan sortu zen, Setien gotzaina zenean, eta ondoren beste toki batzuetara zabaldu zen. Hasieran kanpotik jende asko etortzen zen. Dena den, egun ere jende asko etortzen da kanpotik guregana: kataluniarrak, madrildarrak, suitzarrak, portugaldarrak... ditugu. Izan ere, esperientzia handia eta oso ondo prestatutako jendea dugu.

Zer dira zuentzat droga eta droga-menpekotasuna?

Droga negozio hutsa da. Askori, eurentzako onura lortzearen, ez zaie besteen bizitzarekin negoziotan aritzea axola. Droga-menpekotasuna, berriz, luzera, gaixotasuna da.

Zein da bolondresen egiten duzun lana?

Garai batean, bolondresok programan zeudenak goizean Donostiara eramaten genituen eta arratsaldean etxera ekarri. Egun familiek egiten dute programa egiten ari direnen jarraipena. Familiarekin harremana galdu badute, laguntasunik ez badute, Donostiako fraile komentu batean bizi dira. Komunitatean laupabost hilabete eman ondoren hasten dira bakarrik ibiltzen. Programa egiten ari diren bitartean familiarekin zuten harremana berreskuratzen saiatzen gara. Programa "tradizionala" zailena da, bertan baztertuenak, espetetik irtendakoak... daude. Zigorra badute, programa egiten duten bitartean, zigorra bertan behera uzten zaie. Programa bukatzen badute, zigorra kentzen zaie. Programa honetan dauden gehienak heroinomanoak dira.

Programa "tradizionalaz" gain, beste programarik eskaintzen al duzue?

Hernanikoa. Bertara doazenek familiarekin hartueman dute oraindik, heziketa hobea jaso dute... Modulu hau duela urte pare bat jarri genuen abian eta primeran doa. Bertara doazen gehienak estatus sozial altua eta ardura handiko edo garrantzizko lanak dituztenak dira. Bizimodu hori, status hori... mantentzeko drogatzen dira. Droga-menpekotasuna dutela konturatu dira eta lanetik irtendakoan, arratsaldeetan, joaten dira

Hernanira. Bestalde, astean bitan gaua han pasatzen dute.

Zer eskaintzen diezue?

Denetariako terapiak dituzte: erlajazioa, yoga, kirolak, eskulanak... Azken urte eta erdian kirola asko lantzen ari gara, beraientzat oso ona dela ikusi baitugu.

Nola lan egiten duzue?

Hasteko, egunero-egunero euren bizitzako gauzak atera behar dituzte. Zer edo zer garrantzitsua kontatu gabe uzten badute, gero komunidadera bizitzera joaten direnean aurrera egiteko zailtasunak izaten

“Heziketari garrantzi handia ematen diogu eta gurasoekin hartu-emanarekin ezinbestekoa da”

dituzte. Barruko guztia garbitu beharra dute, barruko larritasuna atera... Hori guztia atera eta programa on bat eginez gero sendatu egiten dira.

Zuen lana benetan gogorra izango da...

Eurek ere pertsona bati gauza okerragorik tokatzea ez dagoela esaten dute. Irten nahi eta ezin! Horrek ohorea eta burua jotzen ditu. Etsaia beti barruan izango dute eta borroka etengabea da. Oso gogorra da, mutilak jota ikusten baitituzu. Nirekin 37 kilorekin, hezur eta azal, heldu zen mutil bat izan zen. Zurekin izandako norbait hiltzea ere oso gogorra da.

Zer da, zuen ustez, drogek sortzen dituzten arazoak ekiditeko egin beharrekoa?

Guk heziketari garrantzi handia ematen diogu eta gurasoen hartu-emanarekin ezinbestekoa da. Norberak bere buruarekin nahi duena egin dezake, baina guk mutilei drogarik hartu gabe zoriontsuak izaten ikasi behar dutela esaten diegu. Hori lor daiteke eta pertsonak hori behar du. Dena den, neurritz eta kontrolaz kontsumitzen duen jendea ezagutzen dut. Horiei arriskuan daudela esa-

ten diet. Epe luzera denak menpekotasunean erortzen dira, asteburuko menpekotasunean behinik behin. Bestalde, urte askotan drogarik inguruko formazio eta orientazio falta izan dira. Inork ez zekien drogek zer kalte ekar zezaketen, HIESa heldu zen arte.

Egungo gazteek informazio gehiago eta heziketa hobea jaso badute ere, jendea droga-menpekotasunean erortzen da...

Egoera kontrolatzen dutela uste dute, baina gero menpekotasuna dutela konturatzen dira. Lehenagotik duten heziketa eta informazioari esker, nora heldu diren konturatzen dira eta arazoa besteek baino askoz ere errazago kopondu ahal dezakete. Beraiekin lan egitea ere errazagoa da.

Egoerak hobera ala okerrera egin al du?

Zumarraga-Urretxun arazo latzak izan ditugu. Azken 18 urteotan 80 lagun hil dira HIESak jota gure bi herriotan. Dena den, egun, Zumarraga eta Urretxuko jende gutxiago dago Gizartea Helburun. Egungurekin dauden herritarrak ez daude Donostian, "tradizionala" deritzonean, bai zik eta Hernanin. Gehienek heroina ez den beste droga batzuekin dituzte arazoak. Metadona hartzen ari den taldetxo bat ere badago, baina herrian bertan hartzen dute tratamendua. Graduatutakoak ondo eta gustura dabilta. Noizean behin Gizartea Helburura joaten dira indarberritzera, hartu-eman mantentzera... eta ondo etortzen zaie.

Eta kaleko egoerari dagokionez?

Kaleko egoerari dagokionez, asteburuetan asko kontsumitzen da. Egun ez da ia xiringarik saltzen farmazietan, baina beste droga batzuen kontsumoak jarraitzen du. Orain etortzen diren batzuk buru aldetik larritasunekin etortzen dira. Etorkizuna ez da hobea izango. Bere kopuruxo hori hartzen duen jendea ezagutzen dut eta eurek ere beti beldurrez daudela esaten dute. Kontrolatzen dutela uste dute, baina hizketan hasiz gero, larritasuna azaltzen dizute.

Zein da egun kalte gehien eragiten ari den droga mota?

Sintetikoak, pastilak. Hain aduleratuta saltzen dira... Gartzelan nahi duten guztia dute, baina adulterazioak beraiei ere

Montajes e Instalaciones Electricas
HERCE
 Electricistas, M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
 Enpresa mantenua
 Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
 Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
 Mugikorra: 919 442 617

20700 URRETXU

TABERNA

Jaurrieta

JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
 ZUMARRAGA

Belar zain

Belardenda, dieta eta errejimen elikadura

Labeaga 30 ☎ 943 72 27 80
 URRETXU

PAKO VIERBUCHER

Ezkontza erreportajeak
 Argazki estudio eta artxiboa
 Prozesu digitalak
 Bideo profesionala
 Argazkigintza materiala

Legazpi, 5 ☎ 72 11 55 Zumarraga	Labeaga, 43 ☎ 72 16 81 Urretxu
---------------------------------------	--------------------------------------


MAPFRE

Aseguru etxea

S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA
 ☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00

beldurra ematen die.

Drogak legeztatzeak ez al luke behintzat adulterazioaren arazoa konponduko?

Nahiz eta drogak legeztatu, adulteratutakoa ere helduko litzateke. Izan ere, edozeinek adultera dezake eta dirua erraz irabazteko aukera da. Nire ustez, legeztatuz gero arazo gehiago sortuko lirateke. Droga zabaltzea izango litzateke eta askoz ere jende gehiagok probatuko luke. Egun kontsumitzen ez duen jende askok kontsumitu egingo luke. Egun jende askori beldurra ematen dio droga probatzeak eta adulteratua izateak ere jende asko atzera botatzen du.

Alkoholak ere sekulako kalteak eragiten ditu, legezkoa izatea ondo iruditzen al zai-zue?




Alkohola eta bestelako drogak oso ezberdinak dira. Alkohola biguna dela esan daiteke, kontrolatzeko errazagoa da eta buelta ematea ere bai. Besteek gorputzari kaltea egunero egiten diote. Edatea ere arazoa da askorentzat, baina arazo hori urteen poderioz sortzen da. Besteek, berriz, epe motzean eragiten dituzte kalteak. Gainera, ez dut uste garai batean bezainbeste jende mozkortzen denik eta lehen bezainbeste edaten denik.

Heroinarekiko menpekotasuna dutenei metadona ematearen aldekoak al zarete?

Metadona medikuaren kontrolarekin hartzen dute. Kontrolatuta hartzen dutela, baina hortik ez dagoela irtetarik esan didate. Engantxatuta jarraitzen dute eta luzarora okerrera egiten dutela ikusten dute. Batzuek heroina uzten dute, ordea: familiarren, lagunenen... laguntasuna dutenek. Bestela oso zaila da. Norberak "bide honetatik ez dut jarraitu behar" esan eta programa gogor bat egin behar du.

Bukatzeko, ez al duzu sekula ezer probatzeko tentaziorik izan, zer izango ote den jakiteko?

Beraiekin hitz egiten, zer moduzkoa den galdetu eta behin baino gehiagotan eskaini didate porroa erretzea. "Eta gero? hortik dator arazoa" esaten diet. "Ke ba, hau ez da ezer" esaten didate. Ikusi duguna ikusita, ez zaigu burutik pasa ere probatzea! Guk ere izugarri sufritzen dugu. Drogekin ezin da jolastu. Hasten bazara zezena bezala sartzen da eta gero buelta ematea...



**Alex
Areizaga**

Zer dira drogak?

Drogak, zer dira drogak? Zaila zait gai honen inguruan idazten hastea. Hiztegi entziklopedikoan, Atsegina edo harekiko menpekotasuna sortzen duena definizioa irakur genezake, baina, zer diote aitona-amonek, seme-alabek edo gurasoek gai honen inguruan? Ziur galdera berari oso bestelako erantzunak emango lizkioketela, denak ezberdinak, baina denak balizkoak.

Haserako galdera beste era batera ere planteatu nezake, hau da, zer ez da droga? Zer da gogoia eta zer beharra? Zer eskatzen digu gorputzak eta zer da soilik, kapritxo bat? Marihuana, Speeda, Kokaina... hauek denok onartzen ditugu droga bezala, gorputzerako kaltegarriak eta telebistan hainbeste entzun dugun bla-bla guzti hori, baina beste aldean, kafea (kafeina), lo hartzeko pilulak, tabakoa, alkohola eta beste hainbeste substantzia aurki ditzakegu, hauek ere drogak, hauek ere atseginak edo harekiko menpekotasuna sortzen dutenak; bakoitzak bere neurrian, baina sortzen dute. Nork ez du ezagutzen lo hartzeko pilulen beharra duen amonarik, edota Play Stationaren aurrean orduak eta orduak igarotzen dituen haurrik? eta hauei ez al ditu gorputzak edo buruak, edo oraindik izenik ez duen "zerbaitek" (hala dei dezagun) hori egitera bultzatzen? Baina... baina zer. Denok gatoz bat hiztegi

definizioa onartzean, hau da, teorian, baina, hortik aurrera norberak bere pajeoak egiten ditu drogen inguruan hitz egitean, eta hemen, nire ustez, droga hitzak bere zentzu guztia galdu du balorazio erabat subjektiboan azpian. Drogak gustatze-ko eginak daude, bestela ez baitziren drogak izango, eta definizio orotatik at, inork uka ezin dezakeena, drogak betidanik egon direla eta egongo direla da; eta onerako edo txarrerako, hori norberak egin beharreko balorazio bat da.

Egongo da esandakoarekin ados ez, eta kafea eta kokaina alderatu ezin direla (norbaite oroitzen al da koka-kolak haseran zuen ingrediente horretaz?), edota gorputzerako kaltegarria denak, nahiz kantitate handian edo txikian kontsumitu, berdin berdin kaltegarri izaten jarraitzen duela dioenik. Ados, hori ez dut ukatzen, baina hain extremistak izanda, zergatik ez hobe, ohetik altxa ere ez egin

Nork ez du ezagutzen lo hartzeko pilulen beharra duen amonarik?

eta horrela, gorputza deskantsatzen utzi? Gorputzarentzat ona al litzateke egunero 20 orduz mendian gora eta behera ibiltzea? Hori astakeria da, ados, hain extremistak izanda esan dut, ados? Oraindik argiago eta ulergarriago; inori ez diola kalterik egiten noizbehinka drogak kontsumitzeak, norberak nahiago duen izenekoa, buruarekin jokatzu gero, beti ere. Beldurtu gabe.

20 urte ere bete ez dituen gazte bat ez da egokiena heroinak herriotan utzitako aztarna latzez hitz egiteko, baina, gogoratu herri hauek izan zirela Espainiako agintarien garaiko euskal gazteriarekin bukatzeko asmoen ondorioz larrinetarikoak pairatu zituzten herriak. Ez da ahaztu beharreko ikasgaia, edo? Denok ezagutzen dugu drogen ondorioz

geratu den norbait, ez da denboran 20 urte atzera egin behar horretarako, baina aldi berean, denok ezagutzen dugu baita ere, kotxe istripu baten ondorioz, edota maitasunaren ondorioz geratu den norbait. Drogak, onerako edo txarrerako oso hedatuak daude, bai gazte eta bai zahar-erengan, eta ezinezkoa litzateke kontsumoa moztea, baina gazte arduragabearen irudiaren defentsan, esan, gazte asko eta asko heldu ugari baino hobe informatuago daudela gai honen inguruan (denari punta atera nahi dionari, esan, ezetz; kasu askotan ez dela horrela), gazte mailako eragile ezberdinek eta Diputazioak lan handia egin baitute eztabaidak edota informazio kanpainak antolatzen, gazte eta ez hain gazteei kontsumitzen dituzten substantzien inguruan hitz egin edo informatzea ahalbidetu dutenak.

Taberna bateko zerbitzariarekin hizketan, droga arazo soziala zela esan zidan. "Ez da non, noiz, nola eta zenbat drogatzen diren aztertu behar; zergatik eta zertarako baizik. Ez dago gazteei zuzenduriko aisialdi eskaintzarik, eta alternatiba zein da, Play Stationa? etxean arratsaldeak telebistaren aurrean igarotzea? gainera indarraren bidez, hau da, sarekada eta isunen bidez ez da lortuko droga kontsumoarekin bukatzea" eta ados nator baieztapen horrekin. Ez al zen hobe izango zerbitzariak esan bezala komunak ixtea? "tabernek inoiz ez dute droga ilegalen kontsumoa bultzatu, alderantziz baizik; alkoholaren, tabakoaren eta bestelako droga legalen inpuestoekin estatuari jokia egiten diogu".

Bestalde, zerbitzariak, drogak leku guztietan kontsumitzen direla gaineratu zuen, heroinaren garaian drogak espazio jakin batzuekin lotzen ziren bezala, egun drogak espazio eta jende mota guztietara hedatuak daudela. "Ez dira soilik gaurko eta hemengo zerbaite, eta ezta ere soilik gazteei afektatzen dien arazo bat".

Hasieran esan bezala, zaila zait drogen inguruan idaztea. Hau irakurtzen duenak analisi pertsonal bat egitea da nire helburua, gai delikatu honen inguruan pentsatzea eta hitz egitea, besterik gabe, eta espero lortu izana. Milesker testu hau idazten lagundu didatenei.

BIONA

AROSZTEGIA

Altzariak neurritan

☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

kutxa.

fundazioa
fundación

EDURNE

JANTZIDENDA

Piedad, 18 ☎ 943 72 14 17
ZUMARRAGA



Lanbira

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52

Keros Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak

Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

500 bazkide baietz!

Zintzo-Mintzo Elkarteak bazkideak lortzeko kanpaina abian jarri du hilabete honetan. Kanpaina honen helburua, Zintzo-Mintzok eskuartean dituen eta izango dituen egitasmoak aurrera ateratzeko elkarte sendotzea da. Bazkide berriak lortzeko ardua nagusia Iñaki Larrañaga urretxuar gazteak izango du. Horretarako, Otamotz aldizkariko harpidedunekin harremanetan jarriko da eta Zintzo-Mintzoren egitasmoen berri emango die.



Iñaki Larrañaga arduratuko da Zintzo-Mintzorentzat bazkideak lortzeaz.

Zer dela eta prestatu duzue bazkide kanpaina?

Zintzo-Mintzok, egungo eta etorkizunean izango dituen erronkei aurre egin ahal izateko, elkarte sendotu beharra ikusi du. Urretxu eta Zumarragan euskararen garapena bultzatzeko, proiektuak eratzeko eta erakundeek normalizazioaren aldeko pausu eraginkorrak eman ditzaten eragiteko, ezinbestekoa da parte hartzea, ezinbestekoa da diruz eta lanaren bidez parte hartuko duten bazkideak lortzea.

Zeintzuk dira Zintzo-Mintzoren erronkak?

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiari ahalik eta ekarpen gehien egin nahi dizkiogu, herriko telebista euskaraz izan dadin lortu nahi dugu eta beranduen 2005eko hasieran kaleratuko den Goierriko Hitzari, Goierri eskualdeko egunkariari, lehen bultzada eman. Eskualdeko egunkari honen zutabe nagusiak Berria, Goierritarra eta Zintzo-Mintzok argitaratzen duen Otamotz izango diren arren, guztion babesa eta laguntza beharko da horren proiektu garrantzitsua aurrera ateratzeko. Bestalde, aurren, azken bi urteotan zehar eginiko Urretxu eta Zumarragako hizkerari buruzko lana liburu eta CD batez kaleratuko ditugu.

Zintzo-Mintzok dagoeneko ezagunak

diren beste hainbat egitasmo ere baditu eskuartean. Elkarte sendotzeak horiek ere sendotzea suposatuko du.

Hala da. Gure asmoa Gaztetxoan Bertso Eskola, Gazte Lokala eta Otamotz bera indartzea da. Gazte Lokalak 100 bazkide inguru eta 12 begirale ditu dagoeneko, Otamotz 2.000 etxetara bidaltzen da eta aurki 100. alea aterako da... baina gehiago nahi dugu. Bestalde, ez dut jaietan antolatzen ditugun ekitaldiez ahaztu nahi: Zumarragako jaietan, Kmk 2002k eta Egunkariaren aldeko batzordeak utzitako lekukoa hartu eta, hiru edo lau egunetan zehar, euskara hutsezko hainbat ekitaldi antolatuko ditugu eta Urretxuko jaietan, betiko moduan, euskararen aldeko kandelak piztea eta Kantu Afaria.

Zenbat bazkide lortu nahi dituzue?

Ahalik eta bazkide gehien lortu nahi ditugu, baina kanpainari "500 baietz!" izena jarri diogu. Egun 294 bazkide garez gero, beste berrehun pasatxo lortu nahi ditugu gutxienez. Otamotzek 2.000 harpidedun dituenez, 500 bazkide izatea nahikoa helburu errealista iruditzen zaigu. Jende gaztearekin ahalegin berezia egin nahi dugu, etorkizunean lekukoa hartu beharko dutenak eurak baitira.

Nola lan egin behar duzu?

Kanpainak, hasiera batean, hiru

hilabeteko iraupena izango du. Hasteko, Otamotz aldizkariko harpidedunen artean ezagunak eta gure ustez bazkide izateko asmoa izan dezaketenak aukeratu ditugu (265 bat). Hauei guztiei gutun bana bidaliko diegu eta, ondoren, banan-banan telefonoz deituko diegu gure asmoen berri emateko. Aste Santu ondoren, gainontzeko harpidedunei bidaliko diegu gutuna.

Zer eskaini behar diezu?

Lehenik eta behin Zintzo-Mintzoko bazkide egitea eskainiko diegu. Lanean ari direnen bazkide kuota 25 eurokoa da eta jubilatuen eta lanik gabe daudenena, berriz, 6 eurokoa (garrantzitsua da, etorkizunari begira, haurrak ere bazkide egitea). Bazkide egiteko asmorik ez duten Otamotzeko harpidedunei, 12 euroko borondatezko dirulaguntza ematea eskainiko zaie. Kontuan hartu behar da Otamotzen kostua aleko 1,73 eurokoa dela.

Anima ezazu jendea bazkide egitera.

Zintzo-Mintzoko bazkide izatea euskararen erabileraren normalizazioaren aldeko proiektu serio baten partaide izatea da. Herria euskalduntzeko eta euskal giroa sortzeko, komunikabide euskaldunak, euskal giroko ekitaldiak... eta hauei guztiei babesa ematen edo antolatzen lan egingo duen jendea ezinbestekoak dira.

ZORIONAK!



Ane, "Kuñaaau" zenari baino hortza gehiago erori zaizki-zu! Zopa jatea Mafaldari baino gehiago gustatuko zaizu behintzat...



Alicia, ea hurrengoan irrifarre txiki bat eskaintzen diguzun, PPkoa dirudizu eta! Zorionak eta ondo ibili!



Aritz, hori da hori irrifarre! Nabari da bai dagoeneko Aste Santuko oporrak hartu dituzuela! Zorionak!



Xabierreko Frantzisko Deuna dirudizu, **Xabier!** Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Garazi, dagoeneko sekulako neskatila eginda zaude... ikaslea baino andereñoa dirudizu! Zorionak eta ondo ibili!



Jone, dagoeneko udaberrian sartu garen arren, ez dirudi oraindik mauka gabeko kamixeta janzteko moduan gaudenik... Zorionak!



Eric, zertan ari zara labana eskuan duzula? Udaberriko zizen bila joateko asmoa al duzu? Zorionak eta ondo ibili!



Itziar, serio samar ikusten zaitugu... mototsa estuegi lotu al dizute? Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Maria Dolores, jibaroengana bidali beharko zaitugu, ea burua datorren urterako burua apur bat txikitzen dizuten!



Elene, hori da hori ile ederra duzuna... "Pelusa" Maradona dirudizu! Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Mireia, zurea bai irrifarre goxoa... ea alboan dituzun horietako batzuek zueganetik ikasten duten! Zorionak!



Jon, ea Aste Santuko oporretatik bueltan irrifartsuago ikusten zaitugun... Zorionak eta ondo pasa oporrak!



Naiara, hori da hori bihurri aurpegia duzuna... zertan ari zara pentsatzen? Zorionak eta ondo ibili!



Unai, zuk ere ez duzu bihurri aurpegi makala... badaezpada ere ez gara zurekin sartuko... Zorionak!



Leire, zein txanpu erabiltzen duzu? Hori da hori ile dizidratsua duzuna! Zorionak eta ondo ibili!



Argi ibili honekin, txintxo plantak egin arren elementu ederra egin dago eta! Zorionak **Iñaki** eta ondo ibili!



Maialen, beldurra ematen duzu! Zure irrifarre eta begirada ikusirik Brad Pittek lepoan koska egin dizula dirudi!



Mila, hori da hori elegantzia... maiztaren 22an Madrilen zita al duzu? Egun horretan pegatinak ipini behar dituzu!



Joseba, jakin al dai-teke zer dela eta zauden horren betilun? Aita harakina izanik arraina jatea nahiago duzulako ote da? Zorionak!



Maddi, ez al diguzu irrifarre txiki bat eskaini behar? Txirri, Mirri eta Txirribitonek dioten bezala... altxa porru! Zorionak!



Jon, zuk bai txintxo aurpegia eta alboan dituzun bi neskatila horiek... Zorionak eta segi orainarte bezain txintxo!



Oihane, jakin al dai-teke nork atera zizun horren argazki kaxkarrak? Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Nahia eta Enara Martin Aldalur "pitiki" maiteak. Martxoak 24an urte bat! Zuek bai aztoratzen duzuela familia guztia!! Zorionak eta horren txintxo eta alaiak izaten jarraitu!



Irati, hori da hori aurpegia... aita bronka botatzen ari al zaizu? Txintxo-txintxo zinelaste uste genuen eta... hara!



Mari Jose, beti jan eta beti gose? Dirudinez, irrifarre besterik ez duzu ahoan, baina ez da gutxi. Zorionak!




Hauek bai lagun onak, argazkian ere elkarrekin atera behar! Zorionak **Rosa Mari eta Nekane!**



Xabier, txapela ez al da handi samarra Aita Santuak bere kapela jartzten duen moduan jartzeko? Zorionak!



Eneko, zer dela eta zaude horren serio? Oporretan asperu egiten al zara? Etorri Otamatzera eta berehala jarriko zaitugu lanean!



Hemen inguruan ezkontzeko asmoa izango duzue ala? Herritik irtenez gero autoa hartu beharra dago eta arazoak sor daitezke: pintxatzea dela, elurrak bidea ixtea dela... **Zorionak Andoni eta Goratz** eta ondo pasa ezkontza eguna!



Jon, zuk bai argazkietan ateratzen jakin! Horren izen laburra ez bazenu, errege-erreginen semea zarela pentsatuko genuke!




Ainhoa, jakin al dai-teke zer apaingarri mota jarri dizuten buruan? Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Iker, hil honetan alproja koadrila ederra zorientzea tokatu zaigu... eta zuk guztien artean kapitaina dirudizu!

Ferretería BRAVO, S.L.



-INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK
-ELEKTRAGAIK
-BURNIZKO TRESNERIA

Legazpi, 4 etxeazpia eskuina - ☎ 943724012 - Faxa: 943725431 - ZUMARRAGA

2004ko martxoa

Juan Mari Urretabizkaia, Euskadiko arku tiro txapeldun



Otsailean Juan Mari Urretabizkaia urretxuarrak areto barruko Euskadiko arku tiro txapelketa irabazi zuen Ibarren. Kirol hori herrian oso hedatua ez dagoenez, Juan Mariaren lorpena oharkabeen pasa da. Arku tiroa herrian apur bat ezagutzera emateko asmoz Juan Mari Urretabizkaia berarekin hitz egiten izan gara.

Nolatan hasi zinen arku tiroan?

Sekula halako kiroletan aritu gabea nintzen, baina katalogoz arku merke bat erosi eta arku tiroan hasia erabaki nuen. Legazpin arku tiro taldea dagoenez, bertara joaten hasi nintzen 1995ean. Segi, segi, segi... eta hona heldu gara.

Ba al dago zaletasunik inguru honetan?

Legazpiko taldean federatutako hamar bat lagun gabilta, baina tiraketetan bost bat lagunek soilik parte hartzen dugu. Orainarte Domingo Agirre ikaste-

txeko areto batean entrenatzen genuen, baina kendu egin digute. Hori dela eta, azkenaldian garajearen egiten ditut entrenamenduak. Aire libreko denboraldian, martxotik urrira arte, Brinkolako urtegitara joaten gara entrenatzera.

Zein alde daude aire libreko eta areto barruko lehiaketaren artean?

Areto barruko distantzia 18 metrokoa da. Aire librean, berriz, dianatik 30, 50, 70 eta 90 metroko distantzietara botatzen da. Neguan, azarotik martxoa bitartean, txapelketak areto barruan iza-

IZERDI PATSETAN

ten dira. Areto barruan eta kanpoan antzera moldatzen naiz, baina areto barruan lortu nuen Euskadiko txapelketa.

Zein kategoriatan lortu zenuen txapelketa?

Beterano mailan parte hartzen dut, baina partehartzaile guztien artean onena izan nintzen eta absolutu mailako txapela ere lortu nuen. Horrez gain, hiru arku mota daude eta bakoitzak bere lehiaketa du: instintiboa (arku sinplea, apuntatzen lagunduko duen elementurik ez duena), errekurbatua (Olinpiadetan erabiltzen dena) eta konposatua (poleak dituena). Nik azken hau erabiltzen dut. Arku mota hau EEBBetan asmatu zuten. Arku honekin besteekin baino askoz ere urrutigotik bota daiteke indar handiagoz. Ehizarako ere erabiltzen da.

Txapelketa irabaztea espero al zenuen?

Duela bi urte bigarren gelditu nintzen, hirugarrena ere gelditu naiz eta iaz aire librean Gipuzkoako txapelduz izan nintzen. Zorte pittin bat ere behar da.

Asko entrenatzen al zara?

Horretarako dudan denbora librearen arabera... Aste batzuetan egunero entrenatzen naiz, besteetan bi edo hiru aldiz... Kirol honetan ere, arkuarekin tiratzeaz gain, bestelako entrenamenduak egitea komeni da. Dena den, ahal dugunean egiten dugu. Lehen bizikletan ibiltzen nintzen, baina besoan min hartu nuen (golfista ukabila deitzen diotena) eta bizikleta utzi behar izan nuen. Arku tiroan aritzeko, berriz, besoak ez dit inongo arazorik ematen.

Nola jokaten dira txapelketak?

Tiralari bakoitzeko goitik-behera hiru diana jartzen dira eta bakoitzera gezi bat bota behar dugu. Parapeto bakoitzean hiru edo lau lagunek botatzen dugu bi txandatan. Denok bota ondoren, puntuazioa eta geziak hartzen ditugu eta berriro botatzen dugu. Saillkapen fasean 60 gezi botatzen ditugu bi txandatan. Final zortzirenetan 18 gezi botatzen ditugu (hiru geziko sei tanda)

eta hortik aurrera 12 gezi (hiru geziko lau tanda). Aire librean, berriz, distantzia bakoitzeko 36 gezi botatzen dira, guztira 144.

Kirol garestia al da?

Ekipamendua nahiko garestia da, behin ekipamendua erosiz gero ez da garestia. 90 eurogatik hastapeneko ekipoa eros daiteke, baina lehiaketetako arkuak 2.000 euro inguru balio du. Geziak, berriz, mota askotakoak daude: egurrezkoek 2,5 euro balio dute, aluminiozkoek 4 euro, karbonoz-

“Kirol honetan ere, arkuarekin tiratzeaz gain, bestelako entrenamenduak egitea komeni da”



Juan Marik txapeldunaren domina jaso zuen Ibarra izandako Euskadiko Txapelketan.

koek 3 euro eta aluminio eta karbonoz egindakoek 14tik 35 eurora.

Etorkizunera begira, zer asmo dituzu?


Orainarteko moduan, txapelketetan parte hartzen jarraitzeko asmoa dut. Dena den, Ordiziako arku taldeak egiten duen tiraketa mota frogatu nahi nuke. Hauek mendian animalia panpinak jartzen dituzte eta, ondoren, ehizara aterako balira bezala irteten dira paseoa.

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan



Conil (Cádiz)

Hondartza ondoan

pisua alokagai

☎ 943 81 23 65

☎ 680 44 26 68



BAPRI


ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak,
katuak, dordokak...

Urdaneta, 3 ☎ 943 72 61 13
ZUMARRAGA



Legazpi, 5
☎ 943 72 62 74
ZUMARRAGA



Gorka Azkarate

Gorkak Ikastolan eta Lizeoan egin zituen Unibertsitate bitarteko ikasketak. Ondoren, Bilbora joan zen, "Athletic-en futbol zelai ondora", Goi mailako ingeniari-tza ikasketak egitera. Master moduko bat egin ondoren, Elgoibarreko zentro teknologiko batean lanean ari da.

Urretxu-Zumarragako kultur arloan parte hartzen duen jendearen laupabost izen bota behar izanez gero, kiniela gehienetan Gorka jarriko genuke. Izan ere, bertsolaria, dantzaria eta musikaria dugu, besteak beste. "Txikitan gehienok gauza askotan hasten gara eta nik ere hala egin nuen. Normalena zer edo zer uztea izango litzateke, baina ez uzte-

agatik ezer jarraitu egin nuen eta denetan gustura nabil".

Hala ere, bertsolari paperean dugu ezaguna batez ere Gorka. Hainbat txapelketa eta saiotan parte hartzeaz gain, beste batzuekin batera, gure bi herriotan bertsozaletasuna suspertzeko lan itzela egiten ari da. Dena den, "talde guztietan tokatzen da zer edo zer egitea. Ez da hara joan eta oboea jotzea bakarrik, talde bakoitzak urtean zehar bere uneak ditu".

Gorkak herriko kultur taldeen egoera ona dela uste du, baina... "Une honetan ez dut ikusten guk uzten dugunean ardura hartuko duenik. Gizartea aldatzen ari da eta jende gazteari dena eginda eman behar zaiola dirudi. Ez dago iniziatibarik".

-Zer izan nahi zenuen umetan?

Ez nuen horretan pentsatzen. Ez dut ezer izan nahi nuenaren oroitzapenik.

-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Mendirra joatea.

-Bizitzeko toki bat?

Zumarraga-Urretxu ez dago gaizki. Bilbok ere xarma berezia du.

-Gustuko bertsolariak?

Mendiluze eta Iturriaga.

-Gustuko herriko bertsolariak?

"Kaxero", Otegitarrak, "Pitu" eta Ojan.

-Musikaria, bertsolaria, dantzaria... Urretxu-Zumarragako Leonardo Da Vinci dirudizu.

Zumarraga-Urretxun badago nik baino lan gehiago egiten duen jendea...

-Noiz ikusiko dugu beltz bat ezpatadantza dantzatzen?

Ikusiko ditugula esango nuke, baita bertsoetan eta baita kulturako beste alorretan ere.

-Noizbait dantzarako ez den beste zer edo zertarako erabiltzeko gogorik sentitu al duzu?

Ez, ezpatadantzarako bakarrik.

-Gustuko mendia?

Balaitous. Ipar Beciberri ere gustura igoko nuke.

-Noiz ikusiko zaitugu parranda egiten?

Parrandak nire erara egiten ditut

-Ileheriak ala beltzaranak?

Beltzaranak.

-Egindako azken oparia?

Kolonia.

-Eta jasotakoa?

Montatzeko hegazkin bat.

-Data bat?

2002ko uztailaren 10a.

-Neska eta mutil izen bana?

Peru eta Irati.

-Zein egunkari irakurtzen duzu?

Nere eskuetara iristen den edozein.

-Gustuko telebista saioa?

Kirol saioak, albistegiak eta "Teknopolis".

-Bereziki gorroto duzuna?

"Salsa Rosa" edo...

-Liburu bat?

Harkaitz Canoren "Pasaia Blues".

-Filme bat?

Coen anaien "Fargo".

-Gustuko abestia?

Sarasateren bibolinarentzako edozein obra. Baita Schubert-en edozein ere.

-Soinu bat?

Ondo jotako oboearena.

-Usain bat?

Belar moztu berriarena.


-Janari bat?

Patata tortila.

-Ura ala...

Ba ote edari hoberik?

Opel Astra




OPEL

Altamira lantegiak

Goierriko zerbitzu ofiziala

Matxinporta, 4 - URRETXU - ☎ 943 72 33 71



SUKALDE ERAKUSKETA



Ipeñarrieta, 5
☎ 943 72 50 75
20700 URRETXU

San Lorenzo, 1
☎ 943 53 35 48
20560 OÑATI

Udala enparantza, z/g.
☎ 943 79 00 43
20500 ARRASATE